

# PAPEREZKO INPERIO BATEN ATLASA

Jorge Luis Borgesek 1946 urtean *Del rigor de la ciencia* (Zientziaren zorrotasunaz) ipuin laburra idatzi zuen. Bertan, mapen eta lurraldeen arteko erlazioaz idatzi zuen, eta antzinako inperio batez, non mapak hain ziren zehatzak islatzen zuten herrialdearen tamaina bera zutela. Kartografoek marraztutako mapa perfektuek herriaren, probintziaren eta inperioaren beraren tamaina hartu zuten, alferrikako tresna bilakatu ziren arte. Borgesek istorio horri heldu diote Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkum artistek Donostiako San Telmo Museoa, Museo Bikoitza programaren baitan, aurkeztu duten proiektua testuinguratzeko.

 JONE ALAITZ URIARTE  OSKAR MORENO

**M**useo Bikoitza 2018. urtetik Donostiako museoan abian dagoen proiektua da. Artista bati museoko bilduman eta ondarean ikertzeko gonbidapena egiten zaio, eta haren begiradatik, bai bilduman zein museoko museografian eragingo duen esku-hartze edo proiektu artistikoa aurkezteko abagunea eskaintzen zaio. Sortzen duen horrek –pelikula, bideo, eskultura edota marrazkia–, museoaren hiru denborekin du zerikusia: iraganarekin, museoko bilduma edo ondarea duelako abiapuntu; orainarekin, egungo begiradatik museoa bera eta honen eraketa analizatu, interpretatu edo itauntzen duelako; eta etorkizunarekin, sortutako artelana museoko bildumaren parte izatera pasako delako. Horrexegatik da berezia eta garrantzizkoa programa hau: urtetik urtera artista garaikideek sortzen dituzten obrak San Telmo Museoako arte-bildumara gehitzen direlako, eta obra horiek gainera, bildumaren eta ondarearen parte diren pieza, artelan, objektu, dokumentu edo edizioei egiten dietelako erreferentzia, egungo begiradatik.

Proiektuaren sorburua Asier Mendizabal artistaren *Soft Focus* erakusketa izan zela esan daiteke. Ordiziarrak erakusketa museoan bertan aurkeztu zuen 2014an, eta aurkeztutako lana museoko erakusketa iraunkorrera batu zen ondoren. Mendizabalen instalazioak 80 dia-



OSKAR MORENO

positiba inguru erakusten zituen, eta *soft focus* deitutako iragazki hedatzaile baten bidez, diapositiba horiek Sigfrido Kochek 1976an *Euskal Entziklopedia Handia*-ren zat ateratako museoko piezetako batzuk erreproduzitzen zituzten. Lan horrek argazkigintzari eta etnografiari buruzko gogoeta egiten zuen, eta museoko bildumako inbentarioko irudietan oinarritzen zen. Esan daiteke operazio hura izan zela Museo Bikoitza martxan jartzeko hazia.

Izan ere, San Telmo Museoa gizarte-museoa eta arte-bilduma den aldetik, artista garaikideen esku-hartzeak txertatuz arte-bilduma hori hedatzeko nahia bazegoen. Tipologia horretako museoetan beti da gai delikatua arte ederren eta etnografiaren arteko banaketa zorrotza. Programa honekin, ordea, bi kategorien arteko esperientziaz gune aitzindari bat zabaldu da, arriskuak ere badakartzana, baina praktika artistikoen bitartez

museoaren bilduma etnografikoari eta erakusketako narratibei buruzko ikuspegiak zabaltzen dituena.

Bide horretatik abiatuta, Iratxe Jaio (Markina-Xemein, 1976) eta Klaas van Gorkum (Delft, Herbehereak, 1975) artistek *Paperezko inperio baten atlas* izenburua eman diote Museo Bikoitza proiektuaren baitan aurkeztu duten obrari. Urtebetez museoeko funtsean lan egitearen ondorioz argia ikusi duen lan itzela da. San Telmoko eliza izandakoan dago ikusgai ikus-entzunezko forma hartu duen lana, Josep Maria Sert pintorearen hamaika mihisez inguratuta; kaperan nagusitzen den argi leunak besarkatzen duen proiektzioa da. Peana baten gainean eta atril batean sostengatuta, eskuz enkoadernatutako liburu handi bat dago zabalik, eta orri zuri eta huts horietan, tipologia ezberdinetako mapak ikusiko ditugu proiektatuta, pantaila bat balitz bezala.

Proiektatzen diren mapak museoaren artxiboan gordetzen diren mapa, kartografia eta plano zaharren aukeraketa bat dira. Pinakotekako biltegian eta Iruneko Gordailun hainbat hamarkadaz biltegitatu eta artxibatu diren mapak aukeratu eta horiek fotografiatzen hasi ziren, xehetasunez, oso kalitate altuan, ondoren digitalizatu ahal izateko. Lan hori ondo egiteko, beso robotiko bat asmatu zuten eta zoom makro objektibo batekin mapak zehaztasunez fotografiatu zituzten, mapen beren kartografia bat eginez, zentimetroz-zentimetro mapa horiek islatzen zituzten lurraldeak zeharkatuz, distantziak laburtuz, hemengo eta hango mendiak, itsasoak, landa-eremuak eta hirietako kaleak beren osotasunean erregistratuz, Borgesek bere ipuinean azaldutakoaren antzerako operazio batean. Digitalizatu-tako milaka irudi horiek artxibatu eta algoritmo baten mende biltegitatu zituzten, algoritmoak aukera zezan ze irudi proiektatu momentu bakoitzean. *Paperezko inperio baten atlas*, beraz, museoeko funtsean gordeta dauden mapen erregistro zehatza da, orri zurizko liburu batean gorpuzten den mapa bizi baten erretratua. Mapa berriak etengabe doaz proiektatzen, akaberarik ez duen bidaia batean. Gainera, mapen digitalizazioaren kalitatea hain da altua, non mapen

tinta, grafia, paperaren grano eta lito-grafoaren hatz markak bereizi ahal diren. Proiektzioa 2023ko uztailean arte egongo da museoeko kaperan ikusgai, eta ondoren museoeko bildumara batuko da, bide batez, Museoeko arte-bilduman artista garaikideen lanek presentzia nabarmenago izan dezaten.

Jaio eta van Gorkum-en esku-hartzea Museo Bikoitza programaren laugarren parada izan da. Hauen aurretik, Jose Mari Zabalak, Erlea Maneros Zabalak eta Ibon Aranberrik parte hartu dute programan. Zabalak film bat egin zuen, museoeko artxibo eta dokumentuetatik abiatutako dokumentala, *Magia, materia eta beharra* izenburupean. Pelikula hori, egun, ikus-

gai dago bilduma iraunkorreko *Industria, aldaketaren eragile* atalean. Zabalari programan parte hartzeko gonbidapena Erlea Maneros Zabala artistaren bitartez heldu zitzaion. Maneros Zabalak *Norusta* izena zeraman proiektu ederra aurkeztu zuen 2020/21 paradarako. Pandemiak erabat markatu zuen denbora tarte horretan, Lekeitioko artistak bildumako litografia batean jarri zuen begirada: Lekeitioko kostaldeko Antzorit lurmuturra irudikatzen zuen estampa. Artista konturatu zen errealitatek nahiko urruti geratzen zela Pedro Pérez de Castrok XIX. mendean egindako estampa hura, eta egiaztatzeko, piragua hartu eta inguru hartara hainbat irteera egin zituen argazki kameraz. *Norusta*, beraz, Lekeitioko kostako argazki bildumaz eta arestian aipatutako litografiaz gain, bideo-lan bat aurkeztu zuen proiektua zen. Maneros Zabalak, gainera, bere familiar hainbat belaunaldiz gorde izan zen orkatz baten adarra museoari eskaini zion dohaintzan. Irudiak nola sortzen diren, eta iruditegien garrantziaz hausnartzen duen artistaren esku-hartzea oso argia eta adimentsua izan zen, besteak beste iragana, oraina eta geroa oso modu organikoan planteatzen zituelako.

Zabala Manerosen gonbitea, aldiz, Ibon Aranberriren bitartez heldu zen. Aranberri Museo Bikoitza programa inauguratzen lehen izan zen, eta bai museoeko klausuroetan nola almagazetan pilatuta zeuden hilarrietan jarri zuen fokua. Estela horiek, berez modu horizontalean erabiliak izan direnak, museoan bertikalean ipintzen hasi ziren toki gutxiago okupa zezaten, baita tente aurkeztu ere, eta horiek biltegitatzerako orduan erabili ohi ziren esturturetan erreparatu zuen Aranberrik. Behaketa horretatik, tamaina handiko biltegitatze esturtureta baten berrinterpretazioa egin zuen artistak, klausuroan bertan aurkeztu zuena. Bestalde, hilarrietako erliebeetan kalkoak egin zituen, harrian zizelkatutako grafiari eta sinbologiari protagonismoa emanez. Hinrich Sachs artista suitzarrak jaso du datorren urtean Museo Bikoitzean parte hartzeko gonbidapena, museoaren logiketan, ondarean eta arte-bilduman esku hartzeko proposamena. ●

